

Berrigara



HAN, ELEMENTALA ETA
BABESTUTAKO 35 ETXEBIZITZA
ERAIKIKO DITUZTE

GABIRIAKO LURSAILETARA



Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefona eta faxa: 943 76 70 58



Zure sukaldea.





Irudiaren munduan

ELENA FERNANDEZ

Irudia, zer da irudia? Gustukoa izan edo ez, irudiaren munduan bizi gara, arnasten dugun guztia diseinuz josia baitago.

Hala ere, egunero estetika eta irudiaren munduan bizi garenok, Euskal Herrian dinamika honetan murgiltzeko beldur handia sumatzen dugu. Ez da berdin Euskal Herrian publizitatea egitea edo estatuko beste hainbat guneetan.

Jakina da, gaur egun merkatua gero eta kompetentzia handiagoz betea dagoela, eta era berean, garrantzitsua dela besteengandik bereiztea kontuan har zaitzaten.

Baina bereiztearen behar honek, enpresaren irudi landu eta berritzailea eskatzen du eta hor dago arazoa; esate-

rako, enpresa askok 100 bat langile izatera heldu arte ez dute logotipo bat ere lantzen, eta are gutxiago irudi korporatibo bat.

Honela, zerbait berritzailea aurkeztu den momentuan, gustukoa bai, baina ezinezkotzat jotzen dute eta auserdia falta honek bultzatuta betiko bide tradizionalera bideratzen ditu lanak. Ondorioz, baliabide berritagarri horiek erabiliz salto hori egiten dutenak oso enpresa gutxi izaten dira.

Zenbat aldiz entzun dugu jaten den lehen gauza begietatik sartzen zaiguna izaten dela? Kasu honetan, ezberdina ote? Ez dut uste horrela

denik. Irudi deigarri batek oro har, besteek baino harrera hobea izango baitu. Horretarako baina "irudia" zaindu beharra dago eta arriskatzea ezinbestekoa da.

Ez dut esango betiko irudi klasikoak urte askotan emaitza txarrak eman dituenik, baina denborak aurrera egin ahala, irudiaren tratamenduak ere aurrera egitea litzateke egokiena. Azken batean, irudia baita produktu baten aurpegia.

Hala ere, egoera hau aldatuko denaren esperantza daukat. Ea, urte batzutan aritu ondoren, enpresetan kontzientzia berritzaile haur ezartzea lortzen dugun.<

«Enpresa askok 100 bat langile izatera heldu arte ez dute logotipoa ere lantzen, eta are gutxiago irudi korporatiboa»



JESUS IZTUETA
Basalgoko auzo-alkatea

«Hemen, inguru honetan, urtean behin baino ez dira egiten idi-demak, Basalgon, hai justu» **6.**



NOEMI LARRAÑAGA
Irakaslia

«Hezkuntza bereziko ikasliekin pazientzia biharrezkoa da. Eta goxua be izan bihar zara» **13.**



AGUSTIN TOLEDO
Dordoka taldeko kidea

«Gutxituen kirolak aurrera egin du azkenaldian, baina oraindik laguntza beharrezkoa da» **16.**

AGENDA ETA ZERBITZUAK

hi, gazte!



BEKAK

Unibertsitateko ikasleentzako mugikortasun-bekak. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa. 2001-02 ikasturtean ikasketak beren erkidegotik kanpo egiten dituzten ikasleentzako. Epea: urriak 31

Irun. Jose Antonio Loidi ikerketa-beka, arlo hauek aztertzeko: antropologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia eta botanika. Epea: irailaren 10etik 28ra.

SARIAK

Ipuinak. Erreterria Hiria ipuin lehiaketa, euskaraz edo gaztelaniaz. Epea: Urriak 31.

LANA

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Lanpostu hauetarako lehiaketa-oposizioa:

GOI MAILAKO UNIBERTSITATE TITULAZIOA:

Goi mailako arkitektoa (2); Bide, kanal eta portuetako ingeniaria (2); Psikologoa (1); Administrazio Orokorreko titulua (14); Arkeologiako goi mailako titulua.

ERDI MAILAKO UNIBERTSITATE TITULAZIOA:

Arkitekto teknikoak (3); Gizarte laguntzaileak (4); Osasun laguntzaileak (2) - Erizaina (OLT-EUD); Herri Lanetako ingeniari teknikoak (4); Industria ingeniari teknikoak (2); Topografiako ingeniari teknikoak (1); Nekazaritzako erdi mailako titulua; Hiri Kalitateko erdi mailako titulua (1). Ikasketak: batxilergoa, LH-2 edo baliokidea. Zerga agentea (1); Prebentzio eta Esku Hartzeetako laguntzaile teknikoak (3).

GRADUATUA, LH-1 EDO BALIOKIDEA:

Autoedizioko laguntzaileak (2); Informazioko laguntzaileak (2); Laborategiko langileak (2).

Nekazaritza eta Abeltzaintzako laguntzaile teknikoak.

Horien guztien eta beste hainbat lanposturen lehiaketa-oposizioen berri emango dizugu bulegoan.

KARNETAK

Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zatzoz Gazte Informazio Gunea.

INFORMAZIO GEHIAGO:

BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO

GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak. Telefonoa: 943 77 91 57.

E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net

Uztailako ordutegia: Osteguna: 08:30-13:30 eta 16:00-20:00. Ostirala: 08:30-13:30.

Abuztuko ordutegia (bi asteen itxita): Osteguna eta ostirala: 08:30-13:30.

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresari eskertuko genizueke Gazte Informazio Gunea igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazte-erri nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru



Geldigorra

Geldigorrixa esan ohi da familia batzuetan.

Geldi egon ezin den pertsona, haurra, batik bat.

– Txikittan ondo geldigorra eta negartixa izan.

hau giroa!

San Juan auzoan jasotako datuak

Luis Mari Agirre

Uztailak 12, eguena
Uztailak 13, egubakoitza
Uztailak 14, zapatua
Uztailak 15, domeka
Uztailak 16, astelehena
Uztailak 17, martitena
Uztailak 18, eguaztena

Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
28 °C	12 °C	– l/m ²
30 °C	15 °C	– l/m ²
24 °C	13 °C	28,6 l/m ²
17 °C	11 °C	0,7 l/m ²
24 °C	11 °C	– l/m ²
27 °C	12 °C	0,2 l/m ²
24 °C	14 °C	1,5 l/m ²

mezak

Santa Marina

Domekak: 11:30, 13:00.
Zapatuak: 19:00.

San Pedro

Domekak: 09:30, 12:30.
Zapatuak eta lanegunak: 19:15.

Sierbak

Lanegunak: 19:30.

Osintxu

Domekak: 11:30.
Zapatuak: 19:00.

Elosu

Domekak: 10:30.

Ubera

Domekak: 10:30.

San Juan

Domekak: 11:00.

San Prudentzio

Domekak: 10:30.

URTE-MEZAK

Santa Marina

Hileko 2. astean, domekan 11:30ean.

San Pedro

Hileko 3. astean, domekan 12:30ean.

urbanoa

San Lorenzo/San Juandik irteerak

07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.

GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorenzo (Soraluze aurrean), Mugertza, Zubieta, San Martin plaza, San Antonio (Zumelaga aurrean), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak

07:20, 07:35 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.

GERALEKUAK: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorenzo, Amillaga eta San Juan.

kontuan hartu...

FARMAZIAK

EGUAKITZA 20:

PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

ZAPATUA 21:

ESTELA. Matxiategi 5... 943 76 19 63

DOMEKÀ 22:

ESTELA. Matxiategi 5... 943 76 19 63

ASTELEHENA 23:

GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05

MARTITZENA 24:

PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

EGUAZTENA 25:

GUALLAR. San Antonio 5... 943 76 11 05

EGUENA 26:

PUY. Barrenkalea 25... 943 76 16 87

OGIA

DOMEKÀ 22... Mizpildi

EGUAZTENA 25... Ogizun

TELEFONOAK

OSASUNA / LARRIALDIK

Anbulatorioa (txanda)... 943 76 24 40

Bergarako udaltzaingoa... 943 77 91 06

Antzuolako udaltzaingoa... 943 76 62 46

Ertzaintza... 943 76 53 40

Osasun Etxea... 943 76 24 40

Asepeyo... 943 76 16 43

Pakea... 943 76 13 49

Angiozarko medikua... 943 78 90 27

Antzuolako medikua... 943 76 62 23

Odol emaleak... 943 76 16 24

Alkoholiko anonimoak... 943 76 51 06

GARRAIOAK

Taxiak... 943 76 19 50

UDALA

Bergarako udaletxea... 943 77 91 00

Antzuolako udaletxea... 943 76 62 46

Udal Artxiboa... 943 77 91 32

Igerilekuak... 943 76 20 51

Kultur Etxea... 943 77 91 58

Liburutegia... 943 77 91 62

Kirolegia... 943 76 56 41

Mizprialde Egoitza... 943 76 13 68

BESTELAKOAK

Epaitegia... 943 76 14 92

Erregistroa... 943 76 13 15

Jardun... 943 76 36 61

Idolaz... 943 76 65 08

Jubilatuena Etxea. Bergara... 943 76 21 40

Antzuolako jubilatuena elk... 943 76 62 71

Postetxea... 943 76 26 85

Bedelkar... 943 76 04 68

Akulu AEK... 943 76 05 18

Udal euskaltegia... 943 76 44 53

Bergarako notaritza... 943 76 10 73

jardunen agenda

■ **Koadrillategi egitasmorako dinamizatzaileak:**

baldintzak: 20 urte beteta izatea, Bergaran edo inguruan bizitea, euskara menperatzea. Pedagogia, Gizarte Hezkuntza, Soziologia edo Magisteritza ikasketak egiten bazabiltza edota gazteekin aisialdian lan egitea nahi baduzu, bidali curriculuma Jardunera (Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g, 20570 Bergara). Informazioa: 943 76 08 19 eta 943 76 36 61.

■ **Dinamizatzaile lanpostua:**

egun erdiko jardunerako dinamizatzailea behar dugu Jardunen. Jardunen kultur ekintzak proposatu eta aztertzea izango da bere lana. Proiektuak abian jartzeaz ere arduratuko da.

Antzeko betebeharretan eskarmentua izatea baloratu egingo da. Euskara ahoz zein idatziz ondo jakitea derrigorrezkoa da. Izena emateko epea irailaren 21ean bukatuko da.

■ **Idazkari-koordinatzaileen lan-poltsa:**

Jardunen dinamizatzaile lanak egitea izango da bere ardura, bai eta beste elkarteekiko harremanez arduratzea ere; diru eta kudeaketa lanez ere arduratuko da. Kontularitza jakitea beharrezkoa da. Antzeko lanetan izandako eskarmentua baloratu da. Euskara ahoz zein idatziz ondo jakitea derrigorrezkoa da. Izena emateko epea irailaren 21ean bukatuko da.

zorionak!



Irantz Bolaños
25ean 12 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta ahizpak.



Uxue Rodriguez
22an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak, Eneritz eta Julen.



Nekane Varela
11n 10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Argiñe.




Julen Arana
24an 9 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Mireia.



Malentxo
22an 2 urte.
Urte askotarako!
Asier, Unai eta besteak.



Oskar Navarro
24an 30 urte.
Urte askotarako!
Emaztea eta lagunak.



Jesus Aldai
23an urtebetetzea.
Urte askotarako!
Xabier, Iker, amona eta amatxo.



Jon Montiel
26an 8 urte.
Urte askotarako!
Aita, ama eta Mikel.



Josu Iñarra
22an 10 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Iñaki Kortabarria
20an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Josu Dominguez
20an 4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Miren Txurruka
24an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irene Azkargorta
20an urtebete.
Urte askotarako!
Familiakoak.



David Guisado
24an 16 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Gorka.



Nora Txintxurreta
22an 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitziber Muguruza
22an 19 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

gutunak

ZORIONAK ELKARTEEI

Bergarako Udal Musika Bandak, Pertxa, Lasai-Toki eta Aize-pe elkartei 25 urteetan zehar jaso ditugun maitasun eta laguntasun momentuak eskertu nahi dizkie. Zorionik beroenak zuen 25. urteurrenean.

Bergarako Udal Musika Banda

*Hurrengo alean
(udako opor aurreko azkena),
uztailaren 27tik
irailaren 6ra
bitartekoen zorion agurrak
argitaratuko ditugu.*



Sherezade Moreno
23an 18 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak, Yasmina eta Aitor.



Jon Urbieta
23an 9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jose Colas
21ean urtebetetzea.
Urte askotarako!
Ana, Bernar, Ina, Pilar eta Gotzon.



Eneko Larrañaga
26an 3 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.

- 🔧 Ikastaro teoriko trinkoak **euskaraz eta gaztelaniaz**
- 🔧 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. **AZTERKETARIK GABE!**
- 🔧 Izena ematean, **%10eko deskontua** Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63



ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

ARRANO



Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09



GOXO-TOKI

Iraila 2. Tf. 943 76 12 35
Matxiategi 34. Tf. 943 76 23 37
BERGARA



DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Teleforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Basalگو auzoan jaiak ospatuko dituzte uztaillaren 21 eta 26a bitartean. Hori aitzakia hartuta, Jesus Iztuetarekin izan gara, auzoaren gainean gauza gehiago jakiteko.

G. Dena prest izango da, bada, jaietarako?

E. Bai, dena prest dago. Aparteko nobedaderik ez dago, urteroko ekitaldiak izango ditugu aurten ere. Jaiak zapatuan hasiko dira, eta hainbat ekitaldi egingo ditugu. Domekan, jendea pixka bat alai dadin, herri kirolak izango ditugu: aizkolariak eta harri-jasotzaileak. Harria jasotzen, gainera, Miguel Arregi "Kostei" arituko da. Urtetan auzoan lanean aritu da, eta hark ere parte hartu nahi izan du auzoko jaietan. Gero, bertso bazkaria egingo dugu. Eguaztean, Santiago Eguna, meza nagusia izango da, baita txirrindulari proba ere. Eta arratsaldean, dantza txapelketa eta idi-demak. Eta eguenean amaituko dira jaiak, meza eta umeendako jolasak izango direla.

G. Jende asko joaten da Basalgoko jaietara?

E. Duela urte batzuk jende gehiago etortzen zen. Baina bueno, orain ere etortzen da jendea. Gainera, eguraldia kontuan hartu behar da, eta laguntzen badu jende gehiago animatzen da. Idi-demetara, esaterako, jende ugari hurbiltzen da.

G. Askotan ikusteko aukerarik ez dago, gainera.

E. Ez, ez. Hemen, inguru honetan, urtean behin baino ez dira izaten idi-demak, eta Basalgon egiten dira. Duela urte batzuk gehiago izaten ziren, baina orain Basalgokoak bakarrik.

G. Beste gai bati eutsita, autobideak bete-betean harrrapatu zaituzte Basalgoko auzotarrak.

JESUS IZTUETA

Basalgoko auzo-alkatea

«Hemen inguruan, urtean behin egiten dira idi-demak: Basalgon»



Jesus Iztueta Basalgoko auzo-alkatea da duela bi urtetik hona.

E. Bai. Baina ez digu eragozpen handirik sortu. Are gehiago, niri hartu didate lursail gehien. Eta nik neuk ez daukat kexu bat bera ere. Ondo portatu dira, eta ahal izan duten neurrian, behinik behin, errespetatu egin dute.

Auzoan ere ez dut aparteko kexurik entzun gai horren inguruan.

«Autobideak ez digu eragozpen handirik sortu. Are gehiago, niri hartu didate lursail gehien eta ez daukat kexu bat bera ere»

G. Basalgon argiteria jarri eta errepidea konpontze-koa zen Udala. Eginda dau- de lanok?

E. Oraindik egin barik daude. Egingo dituztelakoan gaude, baina oraindik ez dituzte egin esandako lan horiek.

Era berean, pilotalekua estaltzea eskatu dugu, baina oraindik ez dute estali. Bada, dagoeneko, urte bat edo beste zain gaudela, ailegatu-ko delakoan...

G. Baserri-auzoetara heltzea kostatu egiten zaio Udalari?

E. Normala izango da, akaso. Lehenengo, herrigunea konpondu eta txukundu, eta gero, iristen badira, baserri-auzoetara etorriko dira. Gu horregatik egoten gara, hain justu, beti pixka bat zain.

G. Bestelako hutsunerik baduzue auzoan?

E. Ez. Esandakoak, argiteria eta frontoia estaltzea. Lan horiek eginez gero konforme egongo ginatke. Aurrera begira ikusi egin behar zein behar gehiago azaltzen den, baina esan bezala, momentuz horiek eginez gero, konforme egongo ginatke.

G. Zenbat baserri dago Basalgon?

E. Hogeita bi inguru. Gertatzen dena da zortzi hutsik daudela. Bat edo beste erabiltzen dute aste-buruetan-eta. Baina zortzi hutsik daude.

G. Gainerakoetan, betiko auzotarrak bizi zarete, ala kaletik edo beste herri batzuetatik etorritakoak?

E. Hemengoak. Baina ez asko. Umeak eta nagusiak kontuan hartuta, berrogeita dozena erdi. Duela berrogei urte, ehun eta berrogeita hamar ginen. Jendeak gehiago du kalerako joera, baserriko bizimodua gogorra da-eta.


Miguel Altuna institutu zaharra Mayc ondoko lursailera eramango dute

Lursail berean babes ofizialeko 35 etxebizitza eraikiko dituzte

Etxebizitzak eta hezkuntza. Bi gai horiei buruzko hitzarmena sinatu du Udalak Eusko Jaurlaritzarekin. Hitzarmenean jasotzen denez, Udalak 24.160 metro koadroko lursaila emango dio Jaurlaritzari. Jaurlaritzak, babestutako 35 etxe eta Miguel Altuna instituturako ikastetxe berria eraikitzeko konpromisoa hartu du.

Udalak Jaurlaritzari emango dion 24.160 metro koadroko lursaila, Mayc enpresaren ondoan dagoen orube zabala da. Hitzartutakoaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Sailak Miguel Altuna instituturako ikastetxe berria eraikiko du han, eta 10.000 metro koadro inguru erabiliko dira horretarako.

Behin ikastetxea eraikita, Ibargarai kaleko Miguel Altuna institutua hara eramango dute. Izan ere, herri erdian egonik, zabaltzeko azalerarik gabe geratu da, Jose Mari Larrañagak, Miguel Altunako zuzendariak azaldu duen bezala: «gaur egun institutuko instalazioak ez ditu betetzen goi mailako zentro baterako baldintzak. Goi Mailako Lanbide Heziketako Institutu Espezializatua izendapena du Miguel Altunak, eta espezialitate berriak eskaintzeko anpliazioa beharrezkoa da. Hala ere, orain gauden tokian, ez dugu zabaltzeko aukerarik, eta ondorioz, Mayc ondoko lursailera jo-



Irudiko lursaila, Mayc-en ezker aldekoa, emango dio Udalak Jaurlaritzari

ango gara. Duela bi urte Udalarik eskaera luzatu genion eta dagoeneko gauzatu da».

BABES OFIZIALEKO 35 ETXEBIZITZA

Hitzarmenaren bigarren parteak etxebizitzari dago. Udalak Eusko Jaurlaritzari emango dion lursailan babes ofizialeko etxebizitzak eraikiko ditu Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak.

Miguel Altuna institutuak 10.000 metro koadro hartuko baditu, gainerako 14.160 metro koadrotan babes ofizialeko hogeita hamabost etxebizitza eraikiko dituzte.

Hori guztia gauzatzeko, Udalak lur zati txikiren bat du erosteko oraindik. Hala ere, Victoriano Gallastegi alkateak esandakoagatik, urrirako lursail osoa erosita egongo da, eta baita Eusko Jaurlaritzaren esku utzita

ere. Ondoren, Jaurlaritzak urtebeteko epea izango du lanei ekiteko.

TRUKEAN, ELEMENTAL ZATIA UDALARENTZAT

Mayc ondoko lursaila emateagatik, Eusko Jaurlaritzak, trukean, Miguel Altuna zaharreko parte bat emango dio Udalarik. Zubiak lotzen dituen institutuaren bi zatietatik Fraiskozuri alderantz dagoena, hain zuzen. Gune horretan etxebizitzak eraikiko dituztela aurreratu du Gallastegi alkateak.

Udalak Jaurlaritzari emango dion lursaila 156.852.000 pezetan baloratu dute. Jaurlaritzak Udalarik emango dion Miguel Altuna zaharreko zatia, aldiz, 235.488.700 pezetan. Bien artean dagoen aldea honela ordainduko du Udalak: bere kargu hartuta institutu berria eta babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko behar diren obra baimenen tasak.

Hitzarmenari, joan den egubakoitzeko osoko bilkuran eman zioten baietza. Alderdi guztien oniritzia jaso zuen, batetik, eskolaren garapenerako onuragarria izango delako, bestetik, babes ofizialeko etxebizitzak egingo dituztelako, eta azkenik, eskola eta etxe horiek eraikiko diren inguruen garapenerako onuragarria izango delako. EHko Jesus Mari Garitanok, hala ere, zehaztapen bat egin zuen, hara heltzeko bidea hobetu behar dela, hain zuzen ere.



Ikastetxearen ezker aldekoa Udalarik esku geratuko da etxeak eraikitzeko..

Novedadeseko kantoia txukuntzeko lanak atzeratuta

Novedadeseko kantoia konpontzeko lanak hilabete eta erdi atzeratuko direla eman du jakitera Victoriano Gallastegi alkateak.

Kantoia abuztuan konpontzeko asmoa bazuten ere, lanak atzeratu egin dira. Arrazoia, Ramon Maria Lili kalea itxita egotea da. Eta Novedadeseko kantoia konpontzen hasiko balira, itxi egin behariko litzateke oinezkoendako. Horrela, oinezkoak Ibargarai kalera joateko biderik gabe geratuko liriateke herriaren gunehorretan.

Hori dela eta, Ramon Maria Lili kaleko lanak bukatu arte itzarongo du Udalak Novedadeseko kantoia konpontzeko. Alkateak aurreratu duenez, hilabete eta



Hilabete eta erdi atzeratuko dira Novedadeseko kantoia txukuntzeko lanak.

erdi barru gutxi gorabehera hasiko dira kantoia txukuntzeko lanak.

EZ APARKATZEKO NEURRIAK

Irizar kalean, Irizar jauregiaren parean dauden oinez-

koendako bi bideak babes-teko zutabeak jarri ditu Udalak. Oinezkoendako bide horietan autorik ez aparkatzeko hartutako neurria da aipatutakoa. Herriko beste gunebatzuetan ere neurri bera hartuko dute.

Euskararen erabilera sustatzeko hitzarmena

Euskadiko Kutzarekin hitzarmena sinatzea onartu berri du Gobernu Batzordeak Euskara batzordeak proposatuta. Hitzarmen horrek euskararen erabilera areagotzea du helburu, eta modu bateratuan egingo dute Debagoieneko zortzi Udalek emaitzak hobetu nahian.

Hitzarmenaren helburu nagusia da Euskadiko Kutzaren funtzionamenduan, barne eta kanpo funtzionamenduan, euskara sustatzea. Kanpo funtzionamenduari dagokionez, Euskadiko Kutzak herritarrekin eta baita Udalarekin ere dituen harremanak hartuko dira kontuan.

Azken bi atentatuak gaitzesteko kale bilkura

Astlehenean, uztailak 16, hainbat udal langilek eta herritarrek kale bilkura isila egin zuten San Martin plazan, hamabietatik hamabi eta laurdenetara. Kale bilkuraren helburua, ETAK asteburuan egindako bi atentatuak gaitzestea izan zen.

ETAK joan den zapatuan bi pertsona hil zituen: Mikel Uribe-ertzaina, tiroz, Leaburun, eta Jose Javier Mujika, Leitzako Udaleko UPNko zinegotzia, bonba-autoz, Leitzan.



ETXAGI
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 943 76 53 12



BANKINTER

%3,5 etik aurrera lehen 6 hilabeteetan

*Irekiera komisioa: %1.
35 urte bitartearaino

Euribor-a + **%0,50** garbia, ondoren*

KONDE
PANADEROKUA



Burdiñate, 1. 943 76 02 57

Kuadrillategi, koadrilei zuzendutako egitasmoa, gertatzen dihardu Jardunek

Kuadrillategi gazteen-dako aisialdi eskaintza antolatzen dihardu Jardun elkar-teak. Neska-mutiko koadri-lendako egitasmoa da, eta bi urte iraungo du (14 urte-ekin hasi eta 16rekin buka-tu). Bi helburu nagusi ditu: batetik, gazteek euskara gehiago erabiltzea; bestetik, hizkuntza sormena piztea, hau da, erdarazko maile-guetara jo beharrean euska-razko berbak sortzea, "que



Lagun taldeak hartuko dira kontuan Kuadrillategin eta urrian hasiko da.

cutre" modukoak esateko, kasu.

Kuadrillategi bi eratan gauzatuko da; betiere begi-rale baten gidaritzapean: hizkuntza tailerrak egingo dira, baita kultura tailerrak ere. Uztailean begirale au-keraketa egiten dihardu Jar-dunek, eta irailean prestatze ikastaroak jasoko ditu. Gero, ikastetxeetan ibiliko dira egi-tasmoaren berri emateko, eta urrian hasiko da.

Joan den egubakoitzean sutea izan zen Errekin

Egubakoitz iluntzean, 20:30 aldera, sute txikia izan zen Erreki erretegian. Sukaldeko erretegitik salto egindako txinparta batek erretegi gaineko hoditerian eragin zuen. Errekiko nagusien esanetan surik ez zen piztu, bai, aldiz, ke handia. Hala ere, suhiltzail-leei hots egin zieten. Keak eragindako zikinkeria dela eta, taber-na itxita egon da aste osoa. Baina nagusiek gaur, egubakoitza, berriz irekitzeko moduan egongo dela aurreratu dute. Abuztu amaieran berriz itxiko dute lan sakonagoak egiteko.



Dixula

**BOKATAK
DAUZKAGU**

Barrenkalea 32
Tf. 943 76 44 95

IRURAK PINTURAK S.L.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOAK: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
FAXA: 943 76 09 32

AGOITZ
tapiz denda

Leizariako San Lorentzo, 25
BERGARA
Tel.: 649 112 675

GURIDI altzariak

Era guztietako
altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02



OGIZUN
koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
BERGARA OÑATI
943 76 20 49 943 78 24 13

iRUDI
Erloju denda
Bitsitegia

Ibargarai, 2
943 76 51 65

Berrigara

461 zenbakia.
2001eko uztailaren 20a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Berrigara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi, Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Mireia Larrañaga.
Harpidetzatzailea: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketa: Sergio Azkarate, Gari Bragado.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate, M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Estepan Plazaola.
Komikiak: Peru Azkarate, Oihán Vega, Usua Mendikute, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Bittor Rodríguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre, Maitane Arizabaleta, Juan Martín Elexpuru, Gorka Ortega.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.600 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntzaz:



Berrigarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

atrebentzia ezpada

Egingo ziñuke zirujia estetikua? Ze aldatuko ziñuke?



Jose Julio Molano

Ezta pentsau be. Norberak ikusiko dau ze egin, baiña neuk illia be ez neuke ikutuko.



Amaia Romaratezabala

Bai, egingo neuke. Begetaziñuak kendu zoztenian, sudurrian neukan gauzatxo bat be konpondu zozten.



Gurutz Orbe

Ez neuke egingo, baiña aukera hori errespetatzen dot. Ondo ikusten dot egittia. Norberak ikusiko dau ze egin bere gorputzak.



Gaizka Tabuenka

Ez. Ni konforme nago. Baiña ez dot gaizki ikusten nahi dabenak egittia. Norberak bere buruakin nahi dabena egin leike.



Josu Zeziaga


Ez. Ez bada, behintzat, apurtutako zeozer konpontzeko. Baiña aukera bat da, eta nahi dabenak aprobetxatzia dauka.



Idoia Azurmendi

Ez. Bilddurra emongo zoztan. Baiña dana dala, ez dot gaizki ikusten nahi dabenak egittia.

tira biraka alex ugalde



adituen esanetan

Intsolazioa

Eguzkitan denbora luzean egoteagatik intsolazioak izaten dira, eta gurean nahiko ohikoak dira. Adina arrisku-faktoreetako bat da, haurrek eta zaharrek intsolazioa izateko arrisku handiagoa dutelako. Hori dela eta, hondartzan edo igerilekuan bisera edo txapeltxo batekin burua babestea ondo etorriko zaie. Era berean, algodoizko kamisetak erabiltzea komenigarria izaten da. Kolore argi-koak badira, kamisetak eguzkitiko energia kanporantz islatuko du. Adinarekin batera, temperatura altua, hezetasuna, sukarra izatea eta eguzkitan denbora luzean egotea arrisku-faktoreak dira.

Bestalde, sintomak honako hauek dira: aurpegiko azala gorritzea, buruko mina, bertigoa, zorabioak, arnasketa azkarra, konbultsioak, pulsu azkarra eta motela eta sukarra.

Temperatura altuekin, intsolazioa prebenitzeko, hobe da eguzkitan luza-ro ez egotea. Eguzkia hartzekotan, goizez edo ilunabarrean hartzea gomendatzen da, orduan txikitzen baita eguz-



RICARDO PAGOAGA

Medikua

«Temperatura altua, adina, hezetasuna, sukarra eta eguzkitan luza-ro egotea arrisku-faktoreak dira»

tziak lasaitu ondoren, bekokian zapi hotzak eta hezeak jartzea ere ondo dator kio eta kontziente baldin badago, ura (giroaren temperaturakoa) emán diezaiokegu (litro ur bakoitzeko gatz koilarakadaxo bat nahastuko dugu). Eta zirkulazioa hobetzeko, hanketan eta besoetan masajeak ematea gomendatzen da. Bestalde, pertsona inkontziente baldin badago, segurtasuneko posizioan, alde batera, jarri eta ospitalera eraman behar dugu. Tratamendu goiztiarrak gaitza sendatzea dakar egun batean edo bitan.

ki irradiazioaren intentsitatea. Era berean, egun beroetan arropa arina eta zabala janztea ona da eta bero handia egiten badu aireztape-na hobetzen (aire girotuarekin edo leihoak zabaldua) saiatuko gara, izerdiaren lurruntzea hobetzeko. Eguzkitan ariketa fisiko gogorra egitea saihestu egin behar da.

Intsolazioa duen pertsona bat, lehenbizi, gerizpera edo leku fresko batera eraman behar dugu, eta ahoz gora eta burua altu jarri. Jan-

bergarako zuhaitzak



Pagoa, Joan XXIII.a plazan.

Pagoa

Fagus sylvatica

Zuhaitz hostoerorkorra, sendoa eta adaburu biribilekoa. Enborra oso zuzena du, askotan inausiak ikusten ditugun arren, azal leun eta hauskarakoa. Hosto obalatuak, ertzean zeta antzeko ile bereziekin.

Apiril eta maiatzean loratzen da, eta fruituak, pagatxak, abereek asko estimatzen dituztenak, udazkenaren hasiera aldera heltzen dira.

Espezie honek ekoizpen irregularra du urteen arabera, hau da, urte denetan ez du hazi kopuru bera ematen.

Garai batean gure mendietan pagadi ugari egon arren, hainbat arrazoirengatik (pinuek ordezkatzeta, egur-ikatza lortzeko...) gutxitzen joan den espeziea da. Bergaran, Pol-Pol eta San Migel inguruan aurkitu ditzakegu gelditzen diren pagadi bakarrenetariko batzuk.

Pagoa zuzen-zuzenean sinismenekin loturiko zuhaitza da. Bergaran esate baterako, Pagola baserri inguruan bazegoen Pagoa Bedeinkatua deituriko pago bat, eta haren inguruan herritarrek gurutzeak jartzen zituzten.

Egurra zuria edo marroi argia izaten da, gogorra eta testura finekoa, ebanisterian eta zurgintzan oso estimatua, nekazaritzako lanabesen kirtanak eta egiteko. Beraren ikatza estimazio handikoa da, eta oraindik ikus daitezke gure mendietan pago lepatuen formazioak, garai bateko ikazkintzaren lekuko. Zuhaitz apaingarri gisa ere landatzen da, batez ere adar dilindariak dituen (Joan XXIII.a plazan) eta pago gorria, hau da, hostoak purpura kolorekoak dituen (Errekalde parkean).

Testua: Maitane Arizabaleta.



Eguzkitan denbora gehiegi egoteagatik izaten dira intsolazioak.

Altxorraren bila Berrigaran

Udalekuetako ume talde bat, Lehoiak, hain zuzen ere, BERRIGARAn izan genituen joan zen egubakoitzean. **Altxorraren bila** ari ziren. Zeregin horretan, pistak lortzeko, hainbat froga gaingitu behar zuten; horietako bat, BERRIGARako bost ale lortzea, eta noski, gure erredakziora etorri ziren. Ez dakigu altxorrik topatu zuten, baina froga hori behintzat gaingitu zuten.



Agur afaria

Hogeita hamabi urtean udaletxean garbitzaile lanean ibili ondoren, erretiratu egin da **Elena Cabo**. Udaletxeko langileek bazkari batekin agurtu nahi izan zuten Elena, eta opariak egin ere egin zizkioten. Zorionak, bada, Elena!

Santa Marina jaietan

Eguaztenean, hilaren 18an, izan zen Santa Marina eguna, baina aurreko asteburuan hasi zituzten ospakizunak. Domekan musika izan zen nagusi, **Udal Musika Bandaren eta txistularien** emanaldiekin. Eguaztenean, berriz, **meza** ospatu zuten, eta hantxe izan zen **udal korporazioa**; argazkian, elizara bidean direla ageri dira. Gaur, egubakoitza, ere ospakizunekin jarraituko dute; **boccia txapelketa** jokatuko dute, hain zuzen, arratsaldeko 19:30ean Matxiategin.



Irala 3
Telefona:
943 76 48 26



IRRINTZI
k a f e t e g i a

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

Ganbara
TABERNA

Heure erara
ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

kontuola

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetaria: Aintzane Irizar **Publizitatea:** Mireia Larrañaga **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Sergio Azkarate, Gari Bragado **Telefonoa:** 943 76 03 97 **Faxa:** 943 76 29 77.

Antzuolako hamabostekaria, 83. zenbakia. 2001eko uztailaren 20a.

Arau subsidiarioak berritzear

Osoko bilkuran behin-behineko dokumentu berria onartu zuten

Orain, jendaurrean jarri dute dokumentu berria eta horrek ekarriko dituen aldaketak, eta alegazioak aurkezteko aukera dago. Era berean, dokumentua egin duen enpresako arkitektoak, Jose Miguel Toledok, hitzaldia egin zuen behin-behinerako onartu dituzten arauen berri emateko.

Gaur egun indarrean dauden arau subsidiarioak 1984. urtekoak dira. Orduetik hona ez dituzte aldatu; hamazazpi urtean ez dituzte berrikusi, eta hori denbora luzea da. Arau subsidiarioak onartzen dituztenean, ez dira denbora jakin baterako izaten, baina zortzi bat urtetik behin berrikustea komeni izaten da, herriaren beharrak ere aldatu egiten direlako eta arauak behar horiei erantzun behar dietelako.

Antzuolak daukan arazo nagusia lurzoru industrialaren beharra da. Izan ere, sektore hori izugarri hazi da, eta lurzorurik gabe zegoen. Arau subsidiario berrieekin, Deskarga aldean, Ipurtikan, hain zuzen ere, industrialdea egin ahal izango dute. Era berean, orain arte lur industrial izan diren hainbat lur bizitzeko lursail izendatuko dituzte, esate baterako, Hilaturaseko lantegia zegoen ingurua. Hantxe 110 etxebizitza egitea aurrez ikusten dute. Ibarre inguruan ere etxebizitzak egingo dituzte, hamar etxebizitzako bost etxe multzo, hain zuzen ere.

ALDE ZAHARRA ZAINDUKO DUTE

Horixe izango da arau berriek ekarriko duten beste aldaketa garrantzitsuenetako bat. Orain arteko arauak oso gogorak ziren alde zaharri dagokionez. Izan ere, etxe zahar ugari botatzea jaso



Arau berriek alde zaharreko egitura zaintzea aurrez ikusten dute.

tzen zen dokumentu zaharrean. Dokumentu berria oso bestelakoa da alde zahararen etorkizunari dagokionez. Kontserbadoreagoa da, gaur egungo alde zahararen egiturari eutsi nahi dio.

Bestalde, herri barruko bidea nahiko estua da, eta arazoak sortzen dira, automobilak bi noranzkoetan ibiltzen direlako. Arau berrietan horri konponbidea ematea ere jasotzen da; horrez gain, garapen berriei komunikazioa hobetuko dute.

ALEGAZIOETARAKO GARAIA

Dagoeneko jendaurrean dago dokumentu berria. Uztailaren 11n dokumentua egin duen arkitektoak, Jose Miguel Toledok, araei buruzko azalpenak eman zituen udaletxean egindako aurkezpenean. Orain, nahi duenak udaletxeko bulegoan dauka, eta alegazioak egiteko aukera ere badago, irail bukaera arte. Irailan, erakusketa egingo dute, jendeari ahalik eta era argiengan arau berriek ekarriko dituzten aldaketak azaltzeko.

■ ■ ■
Irail bukaera arte egongo da dokumentu berriari alegazioak egiteko aukera
■ ■ ■

Euria eginda ere, jaietan jai!

Eguraldi txarra iragarri zuten adituek astebururako. Eguenean ez zuten euririk egin; egubakoitzean, berriz, sekulako eguraldia egin zuten. Baina, asteburua zapatuan hasten da. Alardea bertan behera lagatzekotan ere egon ziren, baina, jai batzordeko eta alardeko ordezkariak bildu, eta aurrera egin behar zela erabaki zuten. Gauean igartzen zen, bai, euriaren eragina; jende gutxi samar zebilen, beste urteekin alderatuz gero. Dena dela, nahi izan duenak ondo majo pasatu du herriko jaietan!



IKURRIN DANTZAREKIN HASI ZIREN JAIAK

Urduri zeuden Oinarineko txikienak. Izan ere, eurek zuten jaiet hasiera emateko ardura, eta plaza jendez beteta zegoen, gainera. Baina ez zuten hutsik egin. Saio polita eskaini ziguten.



URTEROKO IRUDIA: LIZASO ETA EGAÑA ZURRATEGIN

Egubakoitz eguerdian, inguruko gerizpe guztiak bete ziren. Jende ugari batu zen Lizaso eta Egaña entzutera. Arratsaldean, berriz, futbol partidua izan zuten bertsolariek Estalan.



UMEAK, GAZTELUKO ERREGEAK

Nahikoa lan izan zuten gurasoek. Hasieran, umeek beldur pika bat izaten dute gaztelu puzgarrietara sartzeko. Gero, berriz, zeinek esaten die alde egiteko ordua dela?



ZURRATEGIKO KIOSKOA PLATO BIHURTU ZUTEN

Arrasateko egoitzatik irten eta Antzuolara etorri ziren GOITBkoak egubakoitzeko albistegia grabatzera. Bide batez, Iñigo Ramirez elkarriketatu zuten, argazkian ikus daitekeen moduan.

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzèa
Zoruen kutxilatatu eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

GOROSTI Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



HORIA, URDINA, GORRIA... KOLOREZ BETE ZUTEN HERRIA

Ez ziren Hortzmugakoak izan protagonista bakarrak. Herritarrek ere protagonista bihurtu zituzten. Kolorea, musika eta mugimendua. Horrelaxe laburbil daiteke Rekolore ikuskizuna.



TRIKITI ETA ROCK GAUA

Plazan, erromeria. Beheko auzoan, berriz, rock kontzertua. Era guztietako musika, era guztietako gustuak asetzeko. Plazan, Triki ta Ke taldea. Beheko plazan, Flitter, Fits eta Supercools.



VALDEJUNQUERAKO BATAILAN EURIRIK EGIN OTE ZUEN?

Zapatuko alardean, behintzat, ez zuen bakerik eman euriak, eta blai eginda bukatu zuten guztiek, baita kanoiek ere; kostata, baina sutu zituzten, azkenean!



HERRI BAZKARIAN, ELIZPEA BETETA

Jende asko izan zen bazkarian. Bazkalostean, Karmen eta Eltzikortaren senideak omendu zituzten. Karmenek, gainera, telefonoz berba batzuk esateko aukera izan zuen.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA

609 157 131

BERGARA

609 150 164



Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak

- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Aintzane Narbaez, urrezko domina gimnasia

«Gogorra da aldi berean ikasi eta gimnasia egitea»

Aintzane Narbaez gimnasta antzuolarrak urrezko domina eskuratu zuen Valladoliden jokatuak Espainiako Txapelketan. Sokarekin irabazi zuen domina. Eibarko Ipuruia taldean dabil Aintzane. Orain, Espainiako Taldekako Txapelketa prestatzen dihardu.

Soka ariketan urrezko domina eskuratu duzu. Espero zenuen?

Bada, egia esan, ez nuen espero. Kontua da jauzi handiak egiten ditudala, potentzia handia daukat; aurkariak, berriz, 17 urtetik gorakoak dira, eta gorpuzkera aldetik ezberdinak dira, garatuagoak daude; horregatik ez daukate potentzia handirik. Nik uste dut potentzia hori garrantzitsua izan zela urrezko domina lortzeko.

Baina beste aparatu batzuekin ere aritu zinen, ezta?

Bai, uztaiarekin eta pilotarekin ere aritu nintzen. Uztaiarekin oso ariketa ona egin nuen, baina musika amaitzera zihoala, azkeneko jaurtiketa egin eta erori egin zitzaidan. Akats horrekin asko galdu nuen.

Pilotarekin, berriz, ez naiz oso ondo ibiltzen. Pilotarekin espezialistak direnak oso dotoreak dira, elastikotasun handia dute. Hala eta guztiz ere, bederatzigarren geratu nintzen.

Zenbat lan-saio egiten dituzu astean?

Astean lau edo bost egunez entrenatzen gara, hiru ordu egunean. Txapelketa garaian, egunero entrenatzen gara.

Zelan moldatzen zara aldi berean ikasi eta gimnasia egiteko?

Egia esan, oso gogorra da. Gainera, txapelketarik garrantzitsuenak ekainean izaten dira, eta azterketa garaia



Aintzane Narbaez gimnasta.

izanda, bada, zaila da. Lehengoan ere, Valladolidetik bueltatu eta ikasten hasi behar izan nintzen. Dena dela, orain bezala, zerbait irabaziz gero, konturatzen zara merezi izan duela.

Antzuolan badago zaletasunik?

Ez. Lehen Antzuolako jende gehiago zebilen, baina orain ni izango naiz bakarra. Gainera, esan behar da gimnasia ez dela batere baloratzen; oso kirol gogorra da, baina komunikabideek eurek ez diote kasu handirik egiten. Espainiako Txapelketak berak ere ez du ia lekurik izan komunikabideetan.

Hurrengo txapelketa, noiz?

Abenduan Espainiako taldekako txapelketa daukagu, eta hori prestatzen hasi gara. Seguruena, senior mailan jokatuko dut. Podiumera igoko gara, segurua.

IRAILAREN 9AN OSPATUKO DUTE FINALISTA EGUNA

Aurtengoan 27. aldiz ospatuko dute jai hori. 1974ko irailaren 8an egin zuten lehendabiziko aldiz.

Garai hartan Koroson ospatzen zuten. Aspaldiko urteetan, berriz, Trekutzen, eta halaxe ospatuko dute aurtengoan ere. Goizeko 9:00etan jarri dute hitzordua Herriko Plazan. Handik irten, eta Trekutera joan aurretik, bizpahiru orduko ibilaldia egingo dute Antzuola inguruko mendietan. Trekutera iritsitakoan, Gaztelugaineko txabolan, hamarretakoa ere izango dute mendizaleek: salda eta txorizoa jateko aukera izango dute. Bazkaltzeko mahaiak jarriko dituzte Arrola elkartekoek, baina bazkaria norberak eraman beharko du. Edatekoari dagokionez, berriz, taberna jarriko dute Arrolakoek, beraz, ez da etxetik eraman beharrik izango. Bazkalosterako ere hainbat gauza antolatu dute. Alde batetik, umeendako jolasak egongo dira, eta baita dantzarako aukera ere, Antzuolako trikitilari gazteekin.

DAVID LOPEZ, IX. IÑAKI LETE MEMORIALEKO TXAPELDUNA

David Lopez Cafes Baque taldeko txirrindulariak irabazi zuen uztailaren 8an, domekan, jokatu zuten txirrindulari lasterketa. 19 eta 20 urte bitarteko txirrindulariek parte hartu zuten lasterketa horretan. Goizeko 9:30ean hasi zen proba eta 12:30 aldera amaitu zuten Herriko Plazan. David Lopez bakar-bakarrak iritsi zen helmugara (2:58:14); 22 segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari, Tegui taldeko Alan Perez txirrindulariari, hain zuzen ere. Alanekin batera ailegatu zen Alberto Contador Iberdrola taldeko txirrindularia ere, eta hirugarren postuan sailkatu zen. Urtero bezala, Iñaki Leteren alabak eman zion saria txapeladunari.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotutak •
- Moketak eta tapizatuak •

Gutxitu fisikuen irakaslia da. Hamabost urtekin dantza irakasten hasi zan eta Moises Azpiazu dantza taldian dihardu. Ezkonduta dago eta hiru seme-alaba dauzke. Domekan, Mutriku-Deba igeriketa itsas-trabesian parte hartu zeban.

Noemi Larrañaga



Txikittan ikasle ona ziñan?

Bai, beti izan naiz ikasle ona.

Eta ze izan nahi ziñuan?

Haundixa izatia nahi neban.

Oin, irakasle gogorra zara?

Hezkuntza Berezixan ezin gogorra izan.

Ikaslien adiñik egokixena?

Gutxitu fisikuetan, 12-15 urte bittartian.

Erakusteko ikasgaiarik gustokuena?

Musikiakin eta dantziakin lotutakuak.

Eta gutxien gustatzen jatzuna?

Irakurtzen eta idazten erakustia ez jat bat be gustatzen.

Irakasle izateko beharrezko koalidadia?

Gure kasuan, pazientzia. Eta goxua be izan bihar zara.

Denbora librian ze egittia gustatzen jatzu?

Igerixan egittia eta mendixan ibiltzia.

Inguruko mendi bat?

Irukurutzeta.

Igeri egitteko, itsasua ala igerilekua?

Itsasua, baiña zaintzailliekin.

Eguzkittan ala uretan gustorago?

Uretan. Eguzkittan lehertu egitten naiz.

Ze erabiltzen dozu, bikinixa ala baiñujantzixa?

Ahal dan bittartian, bikinixa.

Itsas-trabesiarik polittena?

Getaria-Zarautz gustatzen jat neri.

Egunian zenbat denbora igerixan?

Ordu erdi inguru.

Fandangua ala arin-ariña?

Arin-ariña.

Dantzari jantzixa ze kolorekua?

Neri kolore illuna gustatzen jat.

Janaririk gustokuena?

Barazkixak.

Eta jan ezin dozun zerbait?

Koipia daukenak ez jat gustatzen.

Etxeko lanik gorrotagarrixena?

Aspiradoria pasatzia.

Gustoko jantzi bat?

Soiñekuak eta gona motzak.

Manixa bat?

Gauzak ordenauta eukitzia, bestiak beste.

Bizitza zein kolorekua ikusten dozu?

Oso berdia.

Udako gauzarik onena?

Eguzkixak emoten daben argittasuna eta energixia.

Liburu bat gomendatzekotan?

Obabakoak. Hiru aldiz irakurri dot.

Loterixan 200 millioi irabazi ezkeru?

Oingo moduan biziko nintzake.

Biajia egittekotan, nora?

Honekin konparauta oso diferentia dan leku batera, Egiptora adibidez.



Ze egingo dozu udako oporretan?

Hemen inguruan ibilliko naiz, umiekin eta gizonakin.

POL-POL

Taberna

943 76 07 78



Ur-bide
I T U R G I N T Z A

Zubieta, 28-behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

Garnish
Bitxitegia

San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

ARREGI

Eraikuntza materialak

Biltegia Tellerian, Labegaraietan.
Tf. 943 76 27 93

EDEL
TAPIZDENDA

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoia, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

Elkartasuna eraikitzen

Garapen bidean dauden herrialdeetako bost proiektu lagunduko ditu Udalak

Gobernuz Kanpoko bost erakunderi eman die dirulaguntza Udalak, garapen bidean dauden herrialdeetan hainbat proiektu gauzatzeko. Beste bi erakunderi, berriz, sentsibilizazio kanpainetarako dirulaguntza eman die. Guztira, bederatzi milioi inguru banatu ditu Udalak, iaz baino hiru milioi gehiago; horrela, aurtengo aurrekontuetan aurrez ikusi duen diru guztia banatu du Bergarako Udalak.

Hamaika erakundek aurkeztu zituzten euren proiektuak Udalaren diru laguntza jasotzeko. Horietatik bosti eman die dirua Udalak, honako hauei, hain zuzen ere: Taupada, Fisc, Oscar Romero, Komite Internazionalistak eta Manos Unidas. Diru laguntzak zeini eman erabakitzeke, hainbat irizpide kontuan hartzen dituzte; aurkeztutako proiektuek, puntuazio bat lortzen dute, ezarritako irizpide horien arabera. Alde batetik, erakundeak Bergaran ordezkari izatea kontuan hartzen dute; proiektuari dagokionez, berriz, hainbat gauza hartu dituzte kontuan. Horrela, oinarrizko beharrezanekin lotutako proiektuek lehentasuna izaten dute: etxebizitza, ura, elikadura, osasuna eta hezkuntzarekin lotutakoak, esaterako. Aipatutako bost taldeen artean, Taupadak izan ezik, gainerako erakundeek ordezkari izateko daukate Bergaran.

FISC

Nikaraguan lokal sozial bat egin nahi dute. Mitch hurakanak kalte handiak eragin zituen Nikaraguan. Managuako hainbat auzune goitik behera suntsituta

geratu ziren, eta jendea beste leku batzuetara joan zen. FISCEk, sortu diren auzune berri horietako baten egingo du lokal soziala. Proiektua zabalagoa da; gauza asko dago egiteko. Baina, Bergarako Udalak eman duen dirua lokal soziala egiteko erabiliko dute. Haurtzaindegia izango da lokal hori; arratsaldeetan, berriz, emakumeendako tailerra. Tailer horren helburuetako bat emakumeek lanbide bat ikasi eta formazio egokia izatea da. Dena dela, herrian beharrezko den edozein ekin-tzarako erabili ahal izango dute egoitza hori. Behin dirulaguntza jasota, Managuako herritarrek eurek eraikiko dute lokala.

Fundacion Internacional de Solidaridad Compañia de Maria (FISC) da erakundearen izen osoa. Mariaren Lagundiko mojek sortu zuten, baina, gaur egun, boluntario asko ari dira erakundearendako lanean, denetariko jendea ari da. Bergaran, hamabost lagunek lan egiten dute FISCEn.

MANOS UNIDAS

Madagascarreko ospitale baterako Zainketa Intentsiboetako Unitaterako (ZIU) materiala erostea nahi dute. Duela 80 urte baino gehiago joan ziren Franciscanas de Maria konpainiako mojak Madagascarrera. Ospitale bat jarri zuten hango hiriburuan, Antanavari-non. Duela urte batzuk erizain eskola jarri zuten moja horiek, Manos Unidasen laguntzarekin. Orain, ospitalea eta ondo prestatutako profesionalak bai, baina ospitalerako material faltan daude. Guztira, 50 milioi pezeta behar dituzte ZIU-rako eta larrialdietako sailerako materiala erosteko. Manos Unidas erakundeak 25 milioi jarriko ditu, Madagascarreko jendeak 12 milioi, eta gainerakoa laguntzen bitartez jasoko dute. Bergarako Udalak bi milioi baino gehiago eman die. Euskal Herriko beste erakunde batzuei ere eskatu die diru laguntza: Beasain, Barañain eta Tafallako Udalei eta baita Arabako Foru Aldundiari ere.



Duela bi urte hogei etxe egiteko diru laguntza jaso zuten Komite Internazionalistek.
ARGAZKIA: MIKEL CASTELO

Manos Unidasek ordezkari bakarra dauka Bergaran, Mariasun Zubimendi, hain zuzen. Bera arduratzen da bitartekari lanak egiteaz, eta baita Bergaran bestelako kanpainak abian jartzeaz ere.

KOMITE INTERNAZIONALISTAK

Nikaraguan 15 etxebizitza egin nahi ditu Komite Internazionalistak taldeak. Posoltega herrian egingo dituzte etxebizitzok, Chinandega departamenduan. Mitch hurakanak zonalde honetan eragin zituen kalterik larrienak; herriak desagertzerainoko kalteak eragin zituen. Horrela, familia asko etxebizitzarik gabe geratu ziren. Komite Internazionalistakek beharrian handiena duten familiendako egingo ditu etxeak. Orain dela bi urte ere antzerako proiektu bat egin zuten. Orduan, hogeitxeko etxe egin zituzten. Markos Gabilondo da KIren ordezkaria Bergaran. Berak azaldu digunez, «ez dugu guk erabakitzen ze proiektu egin; hango jendeak esanda, beharrianen araberrako

proiektuak egin, eta dirua lortzeko ahaleginak egiten ditugu». Ia bi milioi eman die Bergarako Udalak. Etxeak egiteko, baina, 8 bat milioi beharko dituzte. Beste erakunde batzuetatik ere jasoko dituzte laguntzak.

OSCAR ROMERO

El Salvadorren etxebizitzak eraiki nahi ditu Oscar Romero erakundeak. Lurrikararen ondorioz, jende asko etxerik gabe geratu zen. Horietako familia batzuetako etxebizitzak egingo dituzte, eta baita eskolak ere. Bestalde, ura herrietara ekartzeko azpiegituren premian daude El Salvadorren, eta horri ere heldu nahi diote proiektu horrekin.

Bergaran bost bazkide ditu erakunde honek; horietako bat Mila Andueza

UDALAREN DIRULAGUNTZAK

PROIEKTUEN LAGUNTZARAKO:

Taupada	1.000.000
Fisc	2.122.807
Oscar Romero	1.971.637
Komite Internazionalistak ..	1.820.381
Manos Unidas	1.500.000
SENTSIBILIZAZIORAKO:	
Mugen gaintetik	250.000
Komite Internazionalistak ..	300.000

KOPURU DENAK PEZETATAN

dugu. Bere anaia Mikel misiolaria da El Salvadorren, eta bera da erakundearen kontaktua. 18 urte darama hantxe.

El Salvadorreko lurrikara gertatu zenean, urte hasieran, laguntza eskatu zuen Oscar Romero taldeak eta Mikelek berak. Eskaera hari oso ondo erantzun zioten bergararrek.

Orain, Udala izan da erakundeak aurkeztutako proiektua lagundu nahi izan duena, ia bi milioi pezetarekin.

Bukatzeko, esan behar da sentsibilizaziorako ere eman duela dirua Bergarako Udalak. Mugen Gaintetik eta Komite Internazionalistak taldeei eman die, hitzaldiak emateko, erakusketak egiteko, jendea sentsibilizatzeko, azken batean.<

Agustin Toledori kirol sari berezia, eta Lagunak-i talderik onenarena

Astelehen arratsaldean kirol sariak banatu zituzten kultura etxean. Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko arduradunak bildutako kirolariek adierazi zienez, «Udalak eta BERRIGARAK emandako sari hauek herriko kirolarientzako lana aitortzeko sortu ziren. Askok eta askok lan aipagarria egin duzue. Ea aurrerantzean ere emaitza onenak lortzeko ahaleginetan jarraitzen duzuen».

HAMAR SARITU

Aurreko edizioetan bezala, talde bakoitzak kirolari baina izendatu zuen, eta hauek izan dira saritutakoak: Maria Romero (saskibaloia), 2. erregionaleko futbol taldea, Mikel Plazaola (eskubaloia), Joseba Herran (pilota), Irati Arteaga (gimnasia), Zigor



Aurtengo kirol sariaren ekitaldian saritutakoak, astelehenean kultura etxean ateratako argazkian.

Medina (Lokatza), Markel Larrañaga (karatea), Aitor Jaso (badminton), Markel Cestafe (Beti-Busti) eta Jose

Joaquin Gomez (Lagunak). Gutxituendako atletismoan diharduen Agustin Toledok aurtengo sari bere-


zia jaso zuen, eta Pedro Rico Lagunak elkartereko kideak talderik onenari zego-kion saria eskuratu zuen.

Agustin Toledo. Kirol Sarietan sari berezia

«Gutxituen kirolak laguntza beharra du»

Agustin Toledok (38 urte) 12 urte daramatza gutxituen atletismoko probetan parte hartzen. Boccian eta pisu jaurtiketan emaitza bikainak lortu ditu: 1994an zilarrezko domina lortu zuen Espainiako boccia txapelketan, 95ean eta 96an taldeko brontzezko domina irabazi zuen, eta aurreko urteko domina irabazi du pisu jaurtiketan. Berre hitzetan: «herritarrek nirekin gogoratzeak ilusio

handia egin dit, sari honekin gutxituok egiten dugun lana aitortzen delako nolabait. Gutxituen kirolak aurrera egin du azken urteotan, baina oraindik guztien laguntza beharrezkoa da. Ez nuen espero saria jasotzea, ezta Espainiako pisu jaurtiketa proba irabaztea ere». Agustin, Dordoka taldeko kidea da, eta berak esan digunez, «gorputzak bale esan arte kirola egiten jarraitzeko asmoa dut».



ile apaindegia
edertze gela

—disdira—

Masterreka, 7 • Tf. 943 76 00 55

INFERNUKUA
TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ezpeleta
Ostalaritzarako
ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako
mahai-zapi eta industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 09

Santa Marina txirrindulari saria zapatuan eta Basalgoko igoera eguaztenean

Zapatuan, hilak 21, Santa Marina txirrindularitza sariaren X. ekitaldia jokatu da, arratsaldeko 4etatik aurrera. Irteera Matxiategitik egingo da, eta helmuga ere bertan izango da. Lokatza Ziklismo Eskolak antolatutako proba honetan gazte mailako txirrindulariek hartuko dute parte eta ibilbidea 98 kilometrokoa izango da. Tartean Udana eta Deskar-gako mendateak izango dira. Lasterketa 18:30 aldera bukatuko da Matxiategin.

Guztira, 100 bat txirrindulari izango dira irteeran. Lokatza Sumofic taldea ordezkatzuz honako hauek hartuko dute parte: Iñigo



Partaideek 98 kilometroko ibilbidea izango dute zapatuan.

Larrañaga, Iñaki Calvo, Zigor Medina, Aitor Zenitagoia, Jon Arzelus, Mikel Elkoro eta Iker Sanchezek.

Palmaresari dagokionez, Lokatzako Aitor Larreak eta Peru Sagarnak Santa Marina saria irabazi zuten, 1994an

eta 1998an, hurrenez hurren. Joan zen denboraldira arte profesionaletan, Fuenlabrada taldean aritutako Josemi Elizburu ere garaile izan zen, 1993an, eta Festina taldeko Iban Sastrek, berriz, 1995eko ekitaldia irabazi zuen.

BASALGOKO IGOERA

Bestalde, eguaztenean, eguerdiko 12etan, Basalgoko igoeraren XIX. ekitaldia jokatu da. Nahi duten gaztetxo guztiek (16 urtera artekoek) parte hartzeko aukera izango dute, eta antolatzaileek kaskoa eramateko eskatu diete txirrindulariei.

Lan eskaintzak

Idazkaria /koordinatzailea

Lan poltsa

EGINKIZUNAK:

Elkartearen dinamizatzaile izatea.
Elkarteko taldeen arteko koordinazioaz arduratzea.
Beste elkarrekeko harremanez arduratzea.
Diru eta gestio lanez arduratzea.

BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.
Kontularitza jakitea.
Eskarmentua baloratuko da.

IZENA EMATEKO EPEA:
Irailaren 21a.

Dinamizatzailea

Egunerdiko jardunerako

EGINKIZUNAK:

Kultur ekintzak proposatu eta aztertzea.
Proiektuak abian jartzea.

BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.

BALORATUKO DA:

Kultura arloan eskarmentuduna izatea.

IZENA EMATEKO EPEA:
Irailaren 21a.

Begiraleak

2001-2002 ikasturterako

EGINKIZUNAK:

Aisialdiko ekintza eta programak aurrera eramatea.

BALDINTZAK:

Euskara ahoz zein idatziz jakitea.

CURRICULUMAK BIDALTZEKO EPEA:
Irekita dago.



Kartzela zaharra, Juan Irazabal z/g,
20570 Bergara
943 76 08 19

IPINTZAKO

futbol txapelketa



Mongatxurra-Bildurbarek finala gaur

Gaur, hilak 20, Mongatxurra eta Bildurbarek Opel Lam taldeek nagusien finala jokatu dute, 19:30ean. Mongatxurra taldeak (argazkian) 3 eta 0 irabazi zion Angiozar taldeari finalerdietan. Mongatxurra taldeak, jokatuako partidu guztiak irabazi dituzte aurtengo txapelketan, eta faboritoak ditugu. Bildurbarek taldeak, berriz, zailagoa izan du finalera heltzea, final-laurdenak eta finalerdietako kanporaketak penalti jaurtiketetan irabazi dituelako.




Eibartarra kadeteetako txapeldun

Joan zen egubakoitzean nesken kadete mailako finala jokatu zen Ipintzan. Ligan zehar Eibartarra taldea izan da indartsuena, eta finalean ere ez zuen eragozpenik izan Fashion Fashion taldeari nagusitzeko. Eibartarra 7 eta 2 irabazi zieten bergarrei. Eibartarra gol gehien egin eta gol gutxien jaso duen taldea izan dugu. Andrea Berbois Eibartarra kideak jokalaritza onenaren saria eskuratu zuen.



Penaltietan Arloteak garaile

Arloteak eta Ogizun taldeak aurrez aurre izan ziren senior mailako nesken finalean. Ligan Ogizun taldeak eskuratu zuen lehen postua, baina finala oso parekatua izan zen. Bi taldeek partidua irabazteko aukerak izan arren, bana-banako emaitzarekin bukatu zen partidua. Azkenean, penalti jaurtiketetan erabaki zen finala, eta Arloteak taldeak irabazi zuen txapelketa. Argazkian, txapel-dunak eskuratutako trofeoarekin.



Senior mailako jokalaritza onenak

Senior nesken finalaren ostean sari banaketa ekitaldia egin zen. Txapel-dunak eta txapel-dunordeek euren trofeoak jaso zituzten eta, horrez gain, beste hainbat sari banatu ziren. Ogizun taldeko Agurtzane Letek txapelketako jokalaritza onenaren saria eraman zuen eta Nerea Portillo bere taldekideak atezain onenarena. Bestalde, iaz moduan, Rachael Olabarriak (Arloteak) BERRIGARRAK emandako trofeoa irabazi zuen, txapelketan gol gehien egiteagatik.

azken emaitzak

NAGUSIAK

Finalerdiak
Bildurbarek Opel Lam-Arloteak 4-4
Angiozar-Mongatxurra 0-3

BETERANOAK

Finalerdiak
Bildurbarek Opel Lam-A Ze Flaxa 2-6
Angiozar-Guipuzcoana 1-1

NEKAK

Finalak
Eibartarra-Fashion Fashion (Kadeteak) 7-2
Arloteak-Ogizun (Seniorrak) 1-1

GASTON Y DANIELA



Kruz Gallastegi 3 ☎ 943 76 07 37
BERGARA

Inglesina.



Banatzaile ofiziala

Loramendi kirolak

INTERSPORT

Zure oporretarako
material guztia

2.490

11.995
Goretex

9.995

2.750

5.995

9.995

San Andres eta Garbair kalean • ARRASATE



MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR

bonofotoa

Bergarako patroia-aren eguna abuztuan da. Zein egunetan ospatzen da eta nor da patroia?

galde debalde

1. Zertarako sinatuko du hitzarmena Udalak Euskadiko Kutxarekin?

- A- Gabiriako lursaila erosteko
- B- Euskara sustatzeko
- C- Maileguen kudeaketarako

2. Zenbat diru banatu du Udalak Gobernuz Kanpoko Erakundeen artean?

- A- 19 milioi pezeta
- B- 3 milioi pezeta
- C- 9 milioi pezeta

3. Zeinek jaso du astelehenean banatu ziren kirol sarietako sari berezia?

- A- Pedro Ricok
- B- Agustin Toledok
- C- Aitor Zabaletak



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria **Larraitz Barrenetxea**rentzat izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Larraitzi! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:

Bonofotoa: **Usono parkea**

Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-A**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____

Telefonia: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Tarradellas pizzak
Askotariko pizzak

369 PTA!

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

Eguenean agur esango digu jazzak zine emanaldiei ekiteko

Datorren egunean, hilak 26, uztaileko jazz emanaldietako azkena izango dugu. Mac Jeara's Band taldeak itxiko du emanaldi sorta. Abuztua, baina, ez da idorra izango kultura emanaldiei dagokienez. Eguenero, film emanaldiak izango dira San Martin plazan.

Donostiako Mac Jeara's Band taldeak emango du datorren eguneko jazz kontzertua. Beti bezala Espoloian 22:00etan. Zortzi musikaririk osatzen dute taldea: zazpi instrumentu jotzailek eta abeslariak.

Guztiak maila handiko musikariak dira, Donostiako Orkestra eta Banda Sinfonikoko partaide, besteak beste. Eguenean eskainiko du-



Tigre y Dragon filmak atzerriko film onenearen Oscarra jaso zuen.

ten saioak 50-70 minutu iraungo du, eta *Hello Dolly*, *Cabaret* eta *When the Saints go marching in* moduko kantuen eskainiko dituzte.

ABUZTUAN ZINEA

Abuztuaren ere izango da zerikusirik Bergaran. Eguenero film bat eskainiko dute San

Martin plazan, 22:00etan. Guztira bost film izango dira: abuztuaren 2an, *Gladiator* (gaztelaniaz); 9an, *Pinoxtxo* (euskaraz); 16an, *Murielen ezkontza* (euskaraz); 23an, *Tigre y Dragon* (gaztelaniaz), eta azkenik, 30ean, *Billy Elliot* (gaztelaniaz).

Ourenseko Castro Floxo dantza taldea udal pilotalekuan

Gaur, egubakoitza, folklore jaialdia izango da udal pilotalekuan. Ourenseko Castro Floxo eta Bergarako Xamatx dantza taldeak buruz buru izango ditugu. Ourensekoek Galiziako doinu eta dantzak ekarriko dituzte gure artera: muiñeirak, jotak, mazurkak eta pandeiradak, besteak beste. Bergarako taldeak, aldiz, Euskal Herriko dantzen erakustaldia egingo du. Castro Floxo taldea berrogei dantzarik osatzen dute, eta dantzez gain, dantzarien janzkera ere ikusgarria da. Jaialdia 22:30ean hasiko da, eta, aurretik, 20:30 aldera, dantzariek kalejira egingo dute.


Pilar Muñozen oleo erakusketa Nahikarin

Pilar Muñoz bilbotararren oleoak ikusgai daude Nahikari tabernan. Hamahiru oleoak osatzen dute margolariaren erakusketa.

Egilea bilbotarra izan arren, erakusketan dauden lanetako bost, Bergarako

irudiak dira: San Martzial, San Pedro, udaletxea edota Kultura Etxea, besteak beste.

Pilar Muñozen erakusketa uztailaren 31 arte egongo da ikusgai, Nahikari tabernako ordutegian.



Uztailaren 31 arte egongo dira ikusgai Pilar Muñozen oleoak.

BERGARA

Margoak

Amillaga 1
1 pabilioia, goiko solairua
162 posta kutxa
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 97 31
Faxa: 943 76 97 32
bergara.margoak@terra.es

REMENTERIA

Altzariak

Egongelak / Logelak
Aukera guztiak / Enkarguan

Artekale 6 Tf.: 943 76 13 29



Izarra futbol taldea, 1947


Gaur, egubakoitza, Ipintzako Futbol Txapelketa amaituko da. Aurten ere partaidetza handia izan da. Azken asteotan emakumeak eta gizonezkoak futbole- an aritu dira hainbat mailatan. Oraingo as- teko erretratu, berriz, Bergaran jokatu zen lehen Futbol-7 Txapelketakoa duzue. Hain- bat talde izan ziren lehen, eta, esan bezala, taldeek zazpi jokalarirekin bakarrik jokatzen zuten. Txapelketa ligaxka moduan jokatu

zen orduan, eta ez zen finalik izan. Izarra tal- dea izan zen txapeldun, azken partiduan 2 eta 1 irabazita. Argazkia 1947. urtean atera- ta dago, Agorrosingo baserriaren ondoan. Txapelketa Bergara Kirol Elkarteak sortu aurre- torkoa da, handik bost urtera, 1952an, sor- tu zen-eta. Datorren urtean, hortaz, sortu ze- neko urrezko ezteiak ospatuko ditu Bergara Kirol Elkarteak. Hauek dira Izarra taldea osatzen zuten gazteak, ezkerretik eskumara:

Zutik: Martin Beitia, Tomas Iturbe, Ju- lian Etxeberria, Juan Irigoien, Fernando Etxeberria eta Angel Muxika.

Makurtuta: Bixente Jauregi, Martin Larrañaga eta Jose Maria Arteaga. Atzealdean, ezkerrean, Concepcion Etxebe- rria, eta eskuinean Martin Alberdi.

Argazkia: Martin Larrañaga



**Manufacturas
LARRAÑAGA**

- Lan-babeserako artikulua
- Seinalaztapena
- Lanerako jantziak

Leizeaga 1.
Tf. / faxa 943 76 59 53.



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldeko erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59

BILTOKI
ASPIZA S.L.

Elektrikako tresnak	Barrenkalea, 6	Tel.: 943 76 25 96
Opariak	Barrenkalea, 12	Tel.: 943 76 04 72
Dekorazioa	San Martin plaza	Tel.: 943 76 43 51
Sukaldeak eta bainuak	San Pedro plaza	Tel.: 943 76 34 00

1955. urtean sortua 46 urte herriaren zerbitzura



GUREN

INTURAK

Pintatze lanak orokorrean

Irala kalea z/g
Tel. eta faxa: 943 76 33 01



Aurpegirako tratamenduak

Garbiketa
Aknea, zimurrak, tonifikazioa...



Gorputzerako tratamenduak

Gizentasuna, zelulitisa, tonifikazioa...
Birmoldaketa
Masaje lasaigarria




Beste zerbitzu batzuk


Depilazioa laser bidez
Depilazio elektrikoa
Mikropigmentazioa
Makillajea



Medikua

Homeopatia bidezko barneoreka
Mesoterapia
Urrezko hariak, kolagenoa, glikolikoa...



LILURA 
EDERTZE INSTITUTUA
Bidekurutzeta 7
BERGARA



JATETXEA



TABERNA

**Eguneko menua • Plater konbinatuak
Kintadak • Bataioak eta jaunartzeak**

Fraiskozuri, 7. Bergara. 943 76 20 40.

ANTXONI

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Zure etxeko
bainugela berri
eta altzariak jarri
aurretik, zatoz
Jakinara. **Diseinua,**
kalitate/prezio
erlazio bikaina eta
saldu osteko
zerbitzu ezin hobea
eskaintzen dizugu...

Eta zeramikako
azken berrikuntzak.

Jakina, zurekin
pentsatzen.



FAGOR 
Sukaldeko altzariak

AENOR

Produktu
zertifikatua

6
URTEKO
GARANTIA

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeko

San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefonoa: 943 76 03 30. Faxa: 943 76 02 91.